



Eusko Legebiltzarrerako

HAUTESKUNDEAK



2020-7-12

EIBARKO EMAITZAK

EAJ-PNVk 300 BOTORENGATIK IRABAZI DIO EH BILDURI ETA 1.200RENGATIK PSE-EEri

Inoizko parte-hartzerik baxuena

Badago esaterik pandemiak azken hilabeteotako bere martxari jarraitu diola eta, ohikoa denez, oraingoan ere asteburuan jairik ez duela hartu. Hauteskunde bereziak ziren oraingokoak -galdetu bestela Ordizian!-, eta jendeak ere horrela hartu izatea ez da hain arraroa. Parte-hartzean jaitsiera igarri da, zalantzarik ez, Euskal Autonomi Erkidego guztian; eta Eibarko kasua ez da desberdina izan horretan. 21.000 lagun geunden deituta hauteskunde hauetara gurean eta 11.300 izan dira euren botoa eman dutenak, parte-hartzea %54an kokatuz. Orain dela lau urte, 2016ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, esaterako, %61ak eman zuen botoa; eta iazko Udalerako eta Batzar Nagusietarakoan (Europarako ere tartean) parte-hartze hori %68ra iritsi zen. Jakina da, bizi dugun egoera berezia dela medio, orain dela lau urte baino gehiagok eman dutela botoa ko-

rreoz: azken datuen arabera, 125.000 inguru izan dira, normalean baino %40 gehiago, eta zentsoaren %7; hala eta guztiz ere, ez da batzuk uste zutenaren kopurura iritsi, bost aldiz gehiago izango zirela ere esan baitzen kanpainaren hasieran.

EAJ-PNV nagusitu da oraingo hauteskunde hauetan Eibarren, 3.662 botoekin, eta 305eko aldea kendu dio EH Bildu bigarrenari. Ezker abertzaleak 3.357 boto eskuratu ditu. PSE-EEK erakutsi du, beste behin, udaletarako ateratzen dituen emaitzak eta Eusko Legebiltzarrerakoetan ateratzen dituztenak ez dutela zerikusirik eta oraingoan 2.432 boto lortu ditu, EAJ-PNVrengatik 1.190 botori. Elkarrekin Podemos orain dela lau urte lortutako laugarren postuari eutsi dio, baina oraingoan askoz ere boto gutxiagorekin, 802 hain zuzen. PP eta Ciudadanos alderdien arteko koalizioa 479 bototan geratu da eta atzetik izan ditu EQUO-Berdeak, 169 botorekin, eta Vox, 100 justurekin.

Parte-hartzea txikiagoa izanda, logikoa da alderdi guztiek behera egin izana, eta horrela gertatu da guztiekin, EH Bilduren kasua kenduta. Oso nabarmentzekoa ezker abertzaleak izan dituen emaitzak: orduko 2.898tik oraingo honetan 3.357ra egin baitu jauzi. EAJ-PNV irabazleak, esaterako, orain dela lau urte baino 561 boto gutxia-



Osasuna babesteko neurri bereziak zainduta, normaltasunez joan da jendea botoa ematera.

go atera ditu. Sozialistek 412 gutxiago izan dituzte oraingoan, Elkarrekin Podemos 884 galdu ditu (orain dela lau urte lortutakoaren erdian geratu dira), eta antzerako kasuan izan da PP, Ciudadanosekin elkartuta ere, orduan eskuratutako 940 atzokoan 479an geratu baitziren.

Orain arte azaldutakoari jarraituz, hainbat berezitasun izan dugu hauteskunde-egoitzetan baita ere, zortzi izatetik bederatziz izatera pasa den honetan. Horrela, hau-

tesleketan normalean PSE-EEK batzuetan eta EAJ-PNVk beste batzuetan erakusten duten nagusitasuna oraingoan EH Bildurekin partekatu dute. PSE-EEK Amañan bakarrik irabazi du, eta EAJ-PNV eta EH Bildu nagusi izan dira, bakoitza lau hauteslekutan: jeltzaleek erditik beherakoak hartu dituzte (Udaletxea, San Andres, Coliseoa eta Urkizu) eta ezker abertzalekoek Untzagako hirigunetik gorakoak bereganatu dituzte (Untzagako jubilatuen etxea, Torrekoa, Ipurueta eta Urki).

udal hauteskundeak izanez gero ZINEGOTZI KOPURUA

EAJ-PNV.....	8
EH Bildu.....	7
PSE-EE.....	5
Elkarrekin Podemos.....	1



bista eder
clinica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82
bista eder, 19 20600 eibar
www.bistaeder.es

20 urte baino gehiago zurekin.

Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.










	EAJ-PNV	EH Bildu	PSE-EE	Podemos	PP-Cs	EQUO-Berdeak	VOX
Amaña	180 (%21)	170 (%20)	335 (%40)	69 (%8)	41 (%5)	10 (%1)	11 (%1)
Coliseoa	328 (%40)	220 (%27)	129 (%16)	53 (%6)	42 (%5)	13 (%2)	8 (%1)
Ipurua (EPA)	390 (%28)	468 (%33)	317 (%23)	113 (%8)	53 (%4)	18 (%1)	7 (%1)
San Andres	710 (%37)	590 (%31)	342 (%18)	118 (%6)	63 (%3)	30 (%2)	12 (%1)
Torrekua	104 (%25)	120 (%29)	102 (%25)	33 (%8)	18 (%4)	10 (%2)	4 (%1)
Udaletxea	848 (%36)	757 (%32)	406 (%17)	144 (%6)	78 (%3)	44 (%2)	27 (%1)
Untzaga (Jubilau-etxea)	163 (%30)	174 (%32)	95 (%17)	48 (%9)	24 (%5)	10 (%2)	4 (%1)
Urki	254 (%24)	323 (%30)	312 (%29)	79 (%7)	57 (%5)	17 (%2)	10 (%1)
Urkizu	685 (%35)	535 (%27)	394 (%20)	145 (%7)	103 (%5)	17 (%1)	17 (%1)
GUZTIRA	3.662 (%32)	3.357 (%30)	2.432 (%21)	802 (%7)	479 (%4)	169 (%1)	100 (%1)

ZENTSOA: 21.033

BOTO-EMAILEAK: 11.361

PARTE-HARTZEA: %54'02

ABSTENTZIOA: %45'98



EMAN CONSULTING, S.L.

- AHOLKULARITZA ETA CONSULTING:
 - Laborala
 - Fiskala
 - Kontablea
 - Juridikoa
- GIZA ERREKURTSOAK: - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- PERTSONALAREN AUKERAKETA

J. Etxeberria, 5 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 **EIBAR**
 Marqués de Valdespina, 10 943 170 054 Fax: 943 176 901 **ERMUA**

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA

emansl@emansl.es




MAILAK TRUST, S.L.


TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
 KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA
- ALOKAIRUAK
- BALORAZIOAK
- SUBENTZIOAK
- BANKU KREDITUAK
- TRASPASOAK
- PERITAJEAK
- KREDITU OFIZIALAK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) 943 200 336 / 943 208 778 Fax: 943 200 342
 Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) 943 170 451 Fax: 943 176 901



Atzo gure herrian boto kopuru handiena lortu zuten alderdiak. 3.000 bototik gora eskuratu zuten EAJ-PNVk eta EH Bilduk eta 2.000tik gora PSE-EEk.



Atzo eta orain dela lau urteko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen arteko alderaketa Eibarren jasotako boto kopuruari dagokionez. Parte-hartzea gutxitzearekin, alderdi guztiek behera egin dute, EH Bildu kenduta.

azken orduko BALORAZIOAK

Alex Arriola
EAJ-PNV



Eibarko emaitzak ikusita, oso balorazio positiboa egiten dugu. Orain dela lau urte gertatu zen bezala, EAJ-PNVk berriz ere lehen indarra izatea lortu du. Beraz, horrek esan nahi du jendea pozik dagoela Eusko Jaurlaritzan alderdiak egiten duen gestioarekin. Euskadi mailan ere lehenak izaten jarraitzen dugu, guk lortu dugu boto gehien berriz ere eta, hori dela eta, oso pozik gaude izan ditugun emaitzekin. Bestalde, Eibarko biztanleek ere gure konfidantza dutela erakusten dute emaitzek, eta horrekin oso pozik gaude. Hemendik aurrera lanean jarraitzea tokatzen da.

Gorka Errasti
EH Bildu



Oso pozik gaude Eibarren lortu ditugun emaitzekin, aurreko hauteskundeekin alderatuz gero hobetzea lortu dugu. Pentsatzen dugu Zaldibarren gertatutakoak ere emaitzetan eragina izan duela eta, alde horretatik, guretzat pozgarria da jende batek begiak zabaltzea ikustea. Eibartik kanpora ere, Euskadi osoko emaitzak begiratu gero, ziurrenik inoizko emaitzarik onenak lortuko ditugu, beraz oso pozik gaude horrekin ere. Beste alderdiek izan dituzten emaitzei begiratu gero, Voxek lortu duen babesa eta jaso dituen botoei esker alderdi horren sarrera litzateke txarrena, zalantza barik.

Jon Iraola
PSE-EE



Eibarko emaitzak onak izan dira gure alderdiarentzat, guk hala ikusten dugu, behintzat. Orain dela lau urte egindako hauteskundeetan izandako emaitzekin alderatuz gero, orduan Eibarko botoen %21 eskuratzeko lortu genuen eta gaur ere portzentaia horri eustea lortu dugu. Hori esanda, hauteskunde hauek atipikoak izaten dira guretzat, normalean emaitzarik onenak alderdi nazionalistek izaten dituztelako eta, kasu honetan ere, emaitzek hala gertatu dela erakusten dute. Hala ere, gure ikuspuntutik emaitzak onak izan direla pentsatzen dugu.

Isabel Fernandez
Elkarrekin Podemos



Emaitzak ikusita, zerbait azpimarratzekotan egon den parte-hartze baxua azpimarratuko genuke, azken batean botoa ematera joan direnak %50 baino pixkat gehiago, besterik ez dira izan. Pentsatzen dugu denak izango zuela eragina azken emaitzetan: krisiak, COVID-19ak... Gauzak horrela, alderdi guztiok hausnarketa sakona egin beharko genuke, argi dagoelako ez dugula lortzen jende kopuru handi batengan ilusioa pizterik. Hala ere, gure emaitzak ez dira onak izan, hori onartu beharra daukagu. Euren botoarekin konfidantza guran ipini duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Gure kanpainako indargune nagusia ezkerreko ardatsa da eta, emaitzak ikusita, gizarteak ez dago prest ezkerreko lehendakari bat izateko. Baina tristurarik handiena Voxek lortu duen eserlekuak eragiten dit, pena handia ematen dit horrelako eskuin-muturreko alderdi batek horrenbeste boto eta indar eskuratzen duela ikustea.

Mª Jesus Agirre
EQUO-Berdeak



Aurretik ere espero genuen boto gutxi jasotzea, azken batean EQUO-Berdeak modura aurkezteko erabakia orain dela sei hilabete hartu zen, ni ez nago udaletxean, ez dugu horrenbeste propaganda eta debate egin... azken batean, gure indar guztiak Araban ipini ditugu, bagenekielako han izango zela borrokarik handiena. Hala ere, azkenean eurek 15.000 boto jaso dituzte eta guk 11.500, hor gelditu gara, pena handiarekin, pentsatzen dugulako gure ordezkaria oso ondo prestatutako persona dela, integroa, eta klima aldaketa eta horrelako gaien inguruan oso jantzita dagoela. Izan ere, aurrera begira, guk oso argi ikusten dugu hasi dugun bide horri jarraitu behar diogula, ingurumenaren alde lan egiten, bizitzarako baldintzak hobetzen ahaleginduta... guretzat beste biderik ez dago eta horren alde lan egiten jarraituko dugu.

ARGITARATZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak
Urkizu, 11 - solairuartera 20600 - EIBAR
Tf: 943-206776 / 943-200918 www.etakitto.eus

BABESLEA: Eibarko Udala

ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte

LAN-TALDEA: Ana Aizpurua / Maider Aranberri
Ekhi Belar / Julian Fernandez / Silbia Hernandez
Ainara Labado / Idoia Labado / Anartz Mitxelena

ARGAZKIAK: Malen Illarramendi / Malen Jainaga

DISEINUA/MAKETAZIOA: Jose Luis Gorostegi

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu / Belen Ulazia

TIRADA: 6.000 ale

BANAKETA: Idoia Labado

INPRIMATEGIA: Gertu koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92
ISSN: 1132-1679

- DISEINUA ETA SORMENA
- WEB GUNEA
- ONLINE DENDAK
- IRUDI KORPORATIBOA, BRANDING-A
- KATALOGOAK
- ERROTULAZIOA
- SEINALEZTAPENA
- BIDEOAK, MOTION GRAPHICS
- ARGAZKIAK
- KARTELAK

komunikazio grafikoa,
zure neurria

Mundua dagoeneko aldatu egin da.
Orain guri dagokigu aldatzea

Desde 1990-etik

Bidebarrieta, 27 B - 20600 EIBAR
Tel. 943 82 13 00
www.estilografico.com

EUSKO LEGEBILTZAR BERRIA



31



22



10



6



5

1

lehen (2016)

EAJ-PNV	28
EH Bildu	18
Podemos	11
PSE-EE	9
PP	9

Gipuzkoan

EAJ-PNV	9
EH Bildu	8
Podemos	3
PSE-EE	3
PP	2

Bizkaian

EAJ-PNV	11
EH Bildu	5
Podemos	4
PSE-EE	3
PP	2

Arabian

EAJ-PNV	8
EH Bildu	5
PP	5
Podemos	4
PSE-EE	3

orain (2020)

EAJ-PNV	31
EH Bildu	22
PSE-EE	10
Podemos	6
PP-C's	5
Vox	1

Gipuzkoan

EAJ-PNV	10
EH Bildu	9
PSE-EE	3
Podemos	2
PP-C's	1

Bizkaian

EAJ-PNV	12
EH Bildu	7
PSE-EE	3
Podemos	2
PP-C's	1

Arabian

EAJ-PNV	9
EH Bildu	6
PSE-EE	4
PP-C's	3
Podemos	2
Vox	1



Uztailaren 12ko hauteskundera begira egindako inkesta gehienek Vox-ek Araban ordezkariak lortzeko aukeraz abisatzen gintuzten moduan, ez dute kalerik egin ezta EAJ-PNV-k lortu zezakeen emaitzen inguruan eta ezta PP-ren jaitziera aurreikusterako orduan. Baina hortik kanpo ez dago hain argi askorik asmatu duten etxe horiek. EH Bilduk lortutako igoera ez zuten hain argi erakutsi eta gutxiago oraindik Elkarrekin Podemosek izandako jaitziera hain nabarmena. PSE-EEri, bestalde, igoera handiagoa izango zuela iragartzen zioten.

Atzo izandako emaitza horiekin, orain arte Urkulluk gidatutako gobernu osatzen duten EAJ-PNVk eta PSE-EEk toki eta funtzio berean jarraitu dezakete beste lau urtez, horretarako orain gehiago argiagoa baitute. Hiru alderdien arteko ezkerreko

gobernuaren aukera ere hor egon daiteke, doi-doi baina zenbakiak ematen dutelako; hala ere, ez dirudi bide horretatik jotzeko asmo handirik dagoenik.

Bestalde, pandemiaren beraren eta Zaldibarren izandako istripuaren ondorengoko kudeaketek hauteskunde hauetan eraginik izan duten jakiteko arrazoi handirik ez da nabaritu, gobernuan izandako alderdi biek gora egin baitute: jeltzaleek hiru ordezkari irabazi dituzte eta sozialistek beste bat. Dena dela, EH Bilduk irabazi ditu ordezkari gehien oraingoan, lau parlamentari gehiagorekin, eta Elkarrekin Podemos eta PP (azken hau Ciudadanosekin) izan dira galtzaile nagusienak: Podemosek bost ordezkari galdu ditu eta PPK lau. Talde berria izango da Euzko Legebiltzarrean hementik aurrera: Vox-ek Espainiatik Euskal Herrira ere egin du jauzia.

GALIZIAKO HAUTESKUNDEAK

lehen (2016)

PP	41
En Marea	14
PSGa	14
BNG-Nos	6

orain (2020)

PP	41
BNG	19
PSGa	15

Euzko Legebiltzarrean bost alderdi izatetik sei izatera pasatu bagara atzoko emaitzen ondoren, Galiziakoan justu kontrakoa gertatu da eta, lehen lau alderdi bazeuden, hemendik aurrera hirurekin moldatuko dira. Podemos-Esquerda Unida-Anova ordezkariak barik geratu da (jaitziera ematen bazioten ere, halakorik ez zen aurreikusten). BNGa-k lortu du igoera handiena, 6tik 19ra jauzi eginez, espero zena baino askoz nabarmenagoa. PPK, bestalde, agintaritzari eusten dio eta ez du beste inoren beharrik gobernuan jarraitzeko. Sozialistek, azkenik, ordezkari bat irabazi dute oraingoan.



Tfnoa: 943 74 18 00
Faxa: 943 74 17 60

P.M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80

Faxa: 943 20 18 41

e-maila: denolan@denolan.es

Muzategi, 1 (EIBAR)



Muzategi, 1 (EIBAR)

Tfnoa: 943 20 16 80

Faxa: 943 20 18 41